

PATOLOGIA ETA OINARRIZKO ZAINKETAK

OCW UPV/EHU 2015

ERIZAINZAKO OINARRIZKO ZAINKETETAKO ARIKETAK

ERANTZUN HURRENGO GALDERAK

1. Zer neurtzen du pulsioximetroak?
2. Zer da tentsio arterial sistolikoa?
3. Farmako bat ematean, zeintzuk dira gogoan izan beharreko 5 zuzenen arauak?
4. Zer da inhalagailu bat?
5. Noiz ordezka dezakegu eskuen garbiketa ura eta xaboiarekin, antiseptikoen aplikazioagatik?
6. Material zorrotzekin istripuak ez izateko 3 neurri aipatu.
7. Sudur-urdaileko zunda jartzen ari zara eta koman dagoen pertsona zianotiko jartzen hasi da. Zer gertatzen da? Zer egin?
8. Zain ziztadaren prozeduran, zaina mugitu egiten dela sumatzen duzu, zer egin?
9. Prozedura esteril bat egiteko eremu esterila prestatu duzu, eta esteril dagoenari lagundu behar diozu (zu ez zaude esteril). Aipatu non jarri behar duzun arreta eremu esterila ez kutsatzeko.

EMAITZAK

- 1. ERANTZUNA:** pulsioximetroak, arterietako odolean dagoen oxigeno kontzentrazioa neurtzen du modu ez erasokor baten bidez (hemoglobina eta oxigenoaren arteko batasun portzentaia).
- 2. ERANTZUNA:** bentrikuluen uzkurketak (sistoleak) odolean eragiten duen presioa.
- 3. ERANTZUNA:** gaixo zuzena, farmako zuzena, dosi zuzena, ordu zuzena eta administrazio bide zuzena.
- 4. ERANTZUNA:** arnas-bidetik hartzen den farmako baten administrazio sistema bat.
- 5. ERANTZUNA:** eskuak garbi daudenean. Alkoholdun agente garbitzaileek, etanola edo isopropanola %60-95eko kontzentrazioan izan behar dute (Food and Drug Association).
- 6. ERANTZUNA:** material ziztagarria botatzeko edukiontzia ziztada burutuko dugun lekura eraman lehen bai-lehen erabilitako material ziztagarria botatzeko. Biosegurtasunerako materiala erabili. Erabilitako orratzari ez jarri berriz estalkia.
- 7. ERANTZUNA:** zunda aire bidean sartzen ari da. Lehen bai-lehen zunda atera egin behar da.
- 8. ERANTZUNA:** esku ez dominantearekin zaina finkatu.
- 9. ERANTZUNA:** gerritik behera dagoena ez esteriltzat kontsideratzen da. Esteril dagoen ezer ezin dut ukitu. Eremu esterilaren gainetik ezin dut ezer pasa. Material esterila eremu esterilera botatzeko gutxieneko distantzia utziko dut. Materialen edukiontziak irekitzean, “kanporantz” irekiko ditut edukiontziaren azalak.